


KUKU

Ezkutuan dauden emakumeak



Inspirazio eta iturriak

Emakume argazkilaria izango dugu inspirazio iturri nagusi:

Vivian Maier. Haurrak zaintzea lanbide zuen eta argazkilaritza maite zuen; argazkiaren artista zen. Bere obra misterioz betea dago. XX. mendearen erdialdean argazkiak atera eta atera ibiltzen zen EEBBetan, eta askotan errebelatu gabe uzten zituen, horretarako diru eta denborarik ez zuelako. Talentu handia zeukan eta sortzaile itzela zen. Naturaltasunez eta sinpleki gelditzen zuen denbora, argazkiarekin klik eginez benetako bizitza asko gorde eta erretratatu zuen; umeak, emakumeak eta langileak.

Bere material guztia kutxa batzuetan agertu zen, enkante batean, eta argazkilaria gazte batek erosi zituen, Vivian nor zen jakin gabe. Aurkitu zuenaz harrিতuta, Vivian Maierren materiala biltzen eta Vivian bilatzen hasi zen. Vivian aurkitu zuenean, 2 egun zeramatzan hilda.

Argazkiak egiten pasa zuen bere bizitza, eta ez zituen inoiz erakutsi. Epaitua izateko beldurragatik, beharbada, edo besteek zer pentsatuko zutenaren beldur. Gizarteak ez zuen ikusten argazkilaritza artistikoa lanbide bezala, are gutxiago emakume batentzat.

Horregatik da garrantzitsua Vivian bezalako emakumeek zabaldu zuten bidea hemen erakustea. Horregatik da inportantea historiak ezkutuan dituen emakumeek kuku egin dezaten historiaren orri zaharretatik, argazki osoa ikusi dezagun.



Sinopsia

*Gaur eguneko **bi gazte** izango dira antzezlanaren protagonista; antzezlan bat egitera etorri dira, baina argazkiz eta negatiboz betetako kutxa zahar bat aurkituko dute antzokian; bizitzaz betetako izoztutako momentu positiboak..*

Nork ekarri du? Zertarako? Norenak dira argazki guzti horiek? Vivianenak al dira? Antzerkia egin ahal izango dute, edo argazki horiek harrapatu eta euren istorioak publikoarekin elkarbanatu behar izango dituzte?

Argazki argazki, negatiboz negatibo, kutxa horretan dauden irudi, audio grabaketak, bideoak eta objektuak gidari izanik, XX. mendeak izan zuen emakume artista ezezagunenetako baten istorioari argazkia aterako diote.

Argazki hauekin, obraren protagonistek **denboran salto** egingo dute; gaur egunetik beste garaietara. **Argazkia transmisioa** eta bidea izango da, gure amek eta amamek, egindako **lanak eta bizipenak** ekarriko dituzte gaur egunera.

6 urtetik aurrerako umei eta familiei zuzendutako **argazki bilduma**, istorio ezberdinez osotua. Historiak erakutsitako argazkiak berriro errebelatu ditzagun, eta **ezkutuan dauden emakumeak** ikus ditzagun sortutako ikuskizuna.

Jorratuko ditugun gaiak

- **Berdintasuna** gizartean.
- Gazteek artearekiko eta argazkilaritzarekiko duten **jarrera**.
- Gaur egungo gizarteak **irudiak** kontsumitzeko duen abiadura.

Bakoitzak bere **bidea aukeratzeko deia** da lan hau, Vivianek izan ez zuen aukera gaur egungo gizarteri emanaz.

Gai hauek islatzen dira lanean. Emakume argazkilaria ezezagun batez ari garenean emakumeek historian jasan behar izan duten **desagerpenaz eta isiltasunez** hitz egiten du Vivian Maiarren istorioak.

Pertsonaiak

Pertsonaia nagusiak **Amaia eta Bea** dira.

Amaia oso langilea da, bere helburua argi dauka. Gaur emanaldia dago, eta publikoa zain dago emanaldia egiteko. Zorrotza, puntuala, arauak bete eta betearazi egiten ditu.

Bea ordea askeagoa da. Bere amama argazkilaria zen, eta berak ere bide horri ekitea gustatuko litzaiokeela uste du. Berak ez du egin behar duten emanaldia egin nahi. Kutxa aurkituta, bertan dauden argazki eta tramankuluak erabilia istorio berriak asmatzea eta Vivianen istorioa kontatzea nahiago du.



TESTUA: Imanol Ituiño

ZUZENDARITZA: Olatz Gorrotxategi

DISEINU ETA ILUSTRAZIOAK: Paul Caballero

DISEINU AHOLKULARIA: BLK Komunikazioa

ANTZEZLEAK: Ana Garcia eta Leire Ormazabal

SOINU ESPAZIOA: Kantauri estudioa

ARGIZTAPENA: Xabier Urrutikoetxea

ARGAZKIAK: ilara

ESZENOGRAFIA: Alfonso Reveron

EKOIZPENA: eidabe



An illustration of two children, a girl on the left and a boy on the right, looking at numerous Polaroid photographs. The girl has long blonde hair and is wearing a colorful, multi-colored dress. The boy has dark curly hair and is wearing a blue shirt. The background is a soft, pastel gradient with floating Polaroid photos and small white dots, suggesting a dreamy or nostalgic atmosphere.

eidabe

ekimen kulturalak

AZAROAN ESTREINALDIA

Kontratazioa zabalik

www.eidabe.com

info@eidabe.com

944 794 315